

# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2015eko ekainaren 9an aurkeztuko du

## **Jeff Koons: atzera begirakoa**

Babeslea

Fundación **BBVA**

BBVA Fundazioa ezagutza zabaltzeari eta berrikuntzari babesa emateagatik nabarmentzen da, oinarrizko zientzietan, ingurumenean, teknologia berrietan, biomedikuntzan eta osasunean, humanitateetan nahiz kulturaren arloan. BBVA Fundazioak garatzen dituen linea estrategikoen artean bat, bikaintasun-bazkideekin eta ibilbide luzeko programetan Kulturaren arloan eragin handiko ekintzak bultzatzea da. Esparru honetan kokatzen da Guggenheim Bilbao Museoaren Babesle Estrategiko gisa jardutea, eta hala egin dugu duela hemezortzi urte museoaren inauguratu zenetik. Babes horri esker, Espainian aurretik inoiz ikusi gabeko lanak biltzen dituzten erakusketak antolatu dira, eta erakusketa horien diseinuari eta kontzeptuari dagokionean, benetan ikuspegi orijinalak erabiltzeko aukera izan dugu. Kasu honetan Jeff Koons artista garaikide ezagunari gaur arte eskaini zaion atzera begirako garrantzitsuena aurkezten dizuegu atsegin handiz.. Guggenheim Bilbao Museoan orain erakusketa hau ikus daiteke. Erakusketa euskal hiri honetara heldu aurretik New Yorkeko Whitney Museum-ean eta Parisko Centre Pompidou-n ikusgai egon da.

Koonsen sormen-etapa guztietako ehun pieza ingururen bitartez, jendeak artista honen ibilbidea eta bere lanaren garrantzia ezagutzeko aukera izango du. Lanak egilearen beraren berrespen pertsonala adierazten du. Artearen historiaren erreferentziak, bereziki Surrealismoa, Pop Art eta Dadalismoa bezalako mugimenduei lotuak, bere lanean ikus daitezke. Obra horiek Museoaren aretoetan banatuta daude kronologikoki:1970eko hamarkadatik gaur egun arte sortu dituen serieak biltzen dira.

Koonsen ekoizpenean “readymade” kontzeptuaren eboluzioa ikus daiteke. Abiapuntu gisa Duchamp-ek finkatutako kontzeptua hartzen du, eta poliki-poliki aldatu egingo du: hasieran objektu industrialak zuzenean erakusten hasi zen, eta ondoren, objektu horien erreproduzioak egin zituen, objektuen materialak, eskalak eta izan zitzaketen esanahiak aldatuz.

Koonsen lanek ez dute beste lan garaikide batzuen eskuraezintasun-kutsurik. Aitzitik, arte irekia da, liluratzeko prestatua. Jendearentzat, oro har, erakargarria gertatzen da. Koonsek artea aldaketa sozialerako faktore gisa ulertzen du, gure mugetatik haratago joaten laguntzen baitigu, norbera bere burua onartzea eta bakoitzaren kultur historiak onartzea sustatzen baitu.

Irrotasun bikaina erakutsiz, Koonsek beti bere buruari jarritako helburuak lortzeko borrokatzen du, eta bere kezka nagusietako bat da kontu handiz eta zehaztasunez zaintzen duen bere lanen akabera formal bikaina. Lan horien akabera egiteko, askotan, teknologia berriena erabili behar du. Lan-prozesuak baliabide asko erabili beharra eskatzen du; eta hori azken emaitzan atzematen da: bere lanek gaur egungo gizartearen ikono gisa funtzionatzen dute, kultura herrikoien sinbolo gisa, kasu batzuetan kritika dira baina, aldi berean, gaur egungo joeren ospakizuna. Horrela, Koons *Puppy* lan enblematikoaren egilea da. Guggenheim Bilbao Museoaren sarreran kokatutako *Puppy* eskultura Bilboko ikono bihurtu da.

BBVA Fundazioarentzako oso atsegina da maila honetako erakusketak gauzatzen laguntzea. New Yorkeko eta Parisko egoitzetan atzera begirakoak oso harrera ona izan du jendearen artean. Horregatik, ziur nago Bilboko jendeak ilusio berberarekin erantzungo duela inor epel uzten ez duen Jeff Koons artistaren artearen aurrean.

Juan Ignacio Vidarte buru duen Guggenheim Bilbao Museoko profesional bikainen taldea eta Scott Rothkopf eta Lucía Agirre komisarioak zoriondu nahi ditugu, erakusketa honen bitartez, beste behin ere, Bilbo kultura garaikidearen zentro nazional eta internazional bihurtzeagatik, eta mundu osoan erreferentzia den goi-mailako museo-proiektu batean parte hartzen utzi gaituztelako.

Francisco González  
BBVA Fundazioko presidentea

*Jeff Koons: atzera begirakoa*

- Komisarioak: Scott Rothkopf, 'Nancy and Steve Crown Family' arte-arduraduna eta Whitney Museum of American Art-eko programen zuzendari kidea, eta Lucía Agirre, Guggenheim Bilbao Museoaren arte-arduraduna.
  - Egunak: 2015eko ekainak 9–irailak 27
  - Babeslea: BBVA Fundazioa
- 
- **Nazioarteko arte garaikidearen irudi gailen den Jeff Koons-en lana eta ibilbidea osotasunean aztertzen ditu erakusketak**
  - **Kronologikoki ikus daitezke estilo berezi-bereziko artista honen lanak: proposamen berritzaile eta ez ortodoxoegi horien bitartez, kritika eta publikoa harritzen jarraitzen du.**
  - **Koonsen lanetan kontzeptu antagonikoak biltzen dira: bizitza eta heriotza, iragana eta oraina, sexualitatea eta xalotasuna, luxua eta laztasuna, betierekoa eta suntsikorra eta femeninoa eta maskulinoa, besteak beste.**

Guggenheim Bilbao Museoak *Jeff Koons: atzera begirakoa* erakusketa hartzen du, gure garaiko artearen figura ospetsuenetako bat den Jeff Koons artista estatubatuarraren obran barrena egindako ibilbide aberatsa. Atzera begirako kronologikoa eta koherentea da New Yorkeko Whitney Museum of American Art-ek, Parisko Centre Pompidou-rekin eta Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan, antolatutako erakusketa hau. Bilbon, erakusketak BBVA Fundazioaren babes aipagarria du.

Jeff Koonsek azken lau hamarkadetan lan berezia, nahastezina eta berritzailea garatu du, eta horrek bihurtu du arte garaikidearen erreferente nagusietako bat. Ezusteko proposamenez betetzen ditu erakusketak eta harridura eragiten du bai kritikaren bai publikoaren artean.

Lehenbiziko aldiz aukera izango da Espainian Koonsen lanaren azterketa zehatza ikusteko. Horrela artistak haren artearekin helarazi nahi duen mezua zabalduko da: norberak bere burua onartzeko, gure inguruko mundua estimatzeko eta artearen bitartez izakia berresteko mezua. Erakusketan, beraz, gure lehen eguna izango balitz bezala mundua bizitzeko eta ulertzeko aholkua eskaintzen da.

**Artea pizgarri moduan**

Jeff Koonsen lanak publikoarentzat ulerterrazak eta ezaguterrazak izan ohi dira, gaur egungo beste artelan batzuk ez bezala. Artearen historiako iturri askotatik edaten dute, hala nola, Surrealismotik, Pop Artetik eta Dadaismotik.

Koonsek era harmoniatsuan elkartzen ditu hasiera batean antagonikoak ematen dituzten kontzeptuak, ikonografiari eta erabilitako materialei esker: bizitza eta heriotza, iragana eta orainaldia, sexualitatea eta xalotasuna, luxua eta laztasuna, betierekoa eta berria, publikoa eta pribatua, industrialak eta eskuz egina, femeninoa eta maskulinoa. Gainera, artelanen akabera bikaina lortzen du; horretarako ezinbesteko tresna du estudioa.

Artea pizgarri gisa erabiltzen du Koonsek, gizartean aldaketa eragiteko. Lan batzuetan, industria-materialak erabiltzen ditu, baina garesti itxura ematen die, luxuzko antza emateko. Arketipo ezagunen erreferentziak gehitzean, ikuslea bere kultur ezagutzekin eroso sentiarazten du. Artistak honela dio: “Indartsu baino indartsuago sentitzen naiz nire artelanak egitean. Artegintza, beraz, nire mugak zabaltzean datza. Eta, espero dut nire lanek ikusleei, niri gertatzen zaidan moduan, haien etorkizuneko aukeren neurri bat helaraztea”.

## Ibilbidea erakusketan barrena

### Puzgarriak, Berriaren aurrekoa, Berria

Erakusketa 205. aretoan hasten da. Bertan, Jeff Koons gaztea zeneko lanak daude ikusgai. Artista 1976an New Yorkera joan zen lan egitera eta hiriaren bizitza islatzen zuen eskultura-objektua hasi zen lantzen.

*Puzgarriak (Inflatables)* izeneko lanak —Manhattango 14. kaleko bazarretan erositako binilozko objektuak— Daliren Surrealismora eta, batez ere, Marcel Duchamp-en readymade-etara eta Ed Paschke-ren lanetara atzera eramaten gaituzte. Ed Paschkeri esker, norberaren lanerako eguneroko mundua iturburu gisa erabiltzeak zuen balioaz gehiago jabetu zen Jeff Koons. Esanahi duala dute lan horiek —adibidez, lore maskulinoz eta femeninoz osatuta dago *Lore puzgarriak (arrosa laburra, hori luzea)* [*Inflatable Flowers (Short Pink, Tall Yellow)*, 1979]— eta Donald Judd-en artearen eta, batez ere, Robert Smithson-en ispiluen inguruko erreferentziak dituzte. Koonsek euskarri gisa erabiltzen ditu ispiluak lan hauetan; izan ere, ispiluek espazioa eta errealtatea zabaltzen dute, eta, bide batez, ikuslea errealtate horren partaide egiten dute, obran islatzen baita.

*Berriaren aurrekoa (Pre-New)* seriean etxetresna elektriko txikiak aukeratu zituen Koonsek — serieari izen hori eman zion hurrengo, *Berria (New)*, egin ondoren, biak bereizteko—. Etxetresna elektriko horiek, garai hartan, kapitalismoaren urrezko garaian, Estatu Batuetako etxe askotan ohikoak ziren, eta hainbat museoen diseinu-bildumetan sartzen hasi ziren, adibidez, New Yorkeko Museum of Modern Art (MoMA) museoarenean —artistak bertan egiten zuen lan—. Koonsek hiru dimentsioko natura hilak eraiki zituen, eta aparatuen osotasuna aldatu zuen hodi fluoreszenteak itsatsi ondoren. Hodi horiek Dan Flavin-en obrak eta dendetako erakusleihoak gogoratzen dizkigute. Horixe da *Teontzia (Teapot, 1979)* lanaren kasua.

*Berria* sailean Koonsek xurgagailu eta zorua leuntzeko makina berri-berriak erakutsi zituen metakrilatozko beira-arasetan, Dan Flavin minimalista gogoratzen diguten hodi fluoreszentez argiztatuak. Serie hau New Yorkeko New Museum of Contemporary Art-en proiektu baterako sortu zuen. Erakusketarako Bosgarren Hiribideko erakusleaho bat erabili zuen.

Artista estatubatuarrek etxetresna elektriko horiek aukeratu zituen ezaugarri antropomorfitako baitituzte eta bizirik daudela diruditen makinak baitira: gizakiek arnasa hartzen dutenean bezala puztu eta hustu egiten dira. Lan hauen formek eta izenburuek femeninoa eta maskulinoa, lehorra eta hezea, eta bizitza eta heriotza dualtasunak erakusten dituzte, besteak beste; horren adibide dugu *Shelton 'Wet/Dry' xurgagailu berriak, hiru maila (New Shelton Wet/Drys Tripledecker, 1981)*.

Bestalde, serie honetako litografiak —esaterako, *Berria! Hau ere berria! (New! New Too!, 1983)*— Koonsek aurkitutako eta beste testuinguru batean jarritako iragarkiak dira, eta artistak publizitatearen eta kontsumoaren inguruan duen interesa erakusten dute.

## Oreka

**206.** aretoan *Oreka (Equilibrium)* serieko obrak ikus daitezke. Lan hauek Jeff Koonsek 1985ean galeria batean egin zuen bakarkako lehen erakusketakoak dira, eta bertan oreka pertsonalaren eta sozialaren arteko gaia jorratu zuen. Serie honetarako, biziraupenarekin lotutako objektuk erabiliz brontzezko eskulturak sortu zituen, adibidez, *Salbamendu-txalupa (Lifeboat, 1985)* eta *Aqualung urpeko igeriketarako jaka (Aqualung, 1985)*. Brontzezkoak direnez, objektuek hilezkoak dirudite, airez eta bizitzaz beteak; hala ere, eskulturak egiteko erabilitako material astunak flotatzeko funtzioa betetzea eragozten diete, eta hortaz, bizitzaren eta heriotzaren arteko oreka lortu ezin duten elementu hilgarri bihurtzen dira.

Jeff Koonsek oreka lortu nahi izan zuen *Oreka perfektuan dauden hiru baloidun arrainontzia (Spalding, Dr. J zilar saila) [Three Ball Total Equilibrium Tank (Dr. J Silver Series), 1985]* bezalako lanetan ere. Bertan, ur-andel batzuen barruan flotatzen ari diren saskibaloiko baloi batzuk agertzen dira, tenperatura-aldaketen edo bibrazioen bidez aldatzen den oreka batean. Lan horiek egiteko, hainbat fisikariren laguntza jaso zuen; hauen artean Richard P. Feynman Nobel saridunarena.

Obra hauen eta bizitzako oreka eskasaren artean paralelismoa dago; antzeko paralelismoa helarazi zuen Koonsek Nike markako poster batzuekin egindako lanetan. Poster horietan arrakastaren eta egonkortasun sozialaren adibide bihurtutako saskibaloiko izarrak ikus daitezke. Artistak irudi horien eskubideak eskuratu zituen, eta posterrak inola aldatu gabe erakutsi zituen, aditzera emateko finkatutako oreka aldatu ez dadin hainbat rol betiketzen direla gizartean; *Dr. Dunkensteinena (1985)* irudi horietako bat da.

## Luxua eta endekapena

Ibilbideak **207.** aretoan du jarraipena. Bertan, Jeff Koonsek 1986an aurkeztutako *Luxua eta degradazioa (Luxury and Degradation)* seriea dago. Alkoholdunen publizitate-kanpainek rol sozialak betiketzeko balio dutela erakusteko asmoz sortu zuen sail hori artistak: ohartu zen eta agerian ipini zuen auzo xumeei zuzendutako iragarkiek mezu esplizituagoak zituztela, abstrakzio handiagoa erakusten zuten auzo aberatsei zuzendutakoekin baino. Jokabide horrek gizarte-mugiezintasuna eta estereotipoak betiketzen laguntzen zuen.

*Luxua eta endekapena* seriean, mihiseekin batera —*Hennessy, legea betearazteko modu zibilizatua (Hennessy, The Civilized Way to Lay Down the Law, 1986)*, adibidez—, Koonsek alkoholaren

kontsumoarekin lotutako hainbat objektu egin zituen. Objektu horiei luxu-itxura faltua eman zien, altzairu herdoilgaitza erabiliz eta akabera distiratsu eta bikaina emanaz. *Jim Beam – J.B Turner tren* izeneko lanean agertzen den bourbona AEBko ohiko kulturaren adibide da, eta lan honetako trenak Mendebaldearen konkistaren garaira garamatza ia. Bestalde, *Baccarat kristalezko ontzi sorta (Baccarat Crystal Set, 1986)* lana luxu europarrarekin eta erdi- eta goi-mailako jendearen zaletasunarekin lotzen da.

### **Estatuaria, Hutsalkeria**

Erakusketak 209. aretoan jarraitzen du. Bertan *Hutsalkeria (Banality)* seriea ikus daiteke. Serie hau osatzeko Jeff Koonsek zurezko erlijio-tailutan eta portzelanazko estatuatxoetan espezializatutako hainbat lantegi bisitatu zituen. Garai hartako gizartearen gai ikonikoei buruzko hainbat eskultura egiteko eskatu zien, esaterako, Michael Jackson eta bere Bubbles txinpantzea irudikatzen zuena —*Michael Jackson eta Bubbles (Michael Jackson and Bubbles, 1988)*—. Lan horrek Migel Angelen *Pietatea* gogoratzen duen piramide-konposizioa osatzen du; saileko beste lan batzuek, berriz, zorion-postal komertzialak, aireportuetako dendetako opari-objektuak eta erlijio-ikonografia gogora dakarte, besteak beste.

Kritikaren iritziz gehiegi eztitutako lan horietan, berriro ere, elkarren aurkako elementuak modu harmonikoan lotu zituen: erotismoa eta xalotasuna, herri-kultura garaikidea eta kultura elitista barrokoa. Lan horien bitartez, Koonsek, gainera, estrategia mediatiko berri eta handinahi bat hasi zuen: *Hutsalkeria* New Yorken, Chicagon eta Kolonianaldi berean aurkeztu zuen.

Erakusketarekin aurrera jarraituz, akabera distiratsuko altzairu herdoilgaitzean egindako hainbat eskultura ikus daitezke. Koonsek eskultura horiek 1986. urtean aurkeztu zituen New Yorkeko Ileana Sonnabend galeria entzutetsuan *Estatuaria (Statuary)* izenburupean. Pieza hauek historiako hainbat pertsonaiaren arketipoak eta irudiak erakusten dituzte, hala nola, *Luis XIV.a (Louis XIV, 1986)*, monarkia absolutistaren eta enkargu bidez egindako arte elitistaren sinbolo den erregearen tamaina errealeko bustoa, eta *Bob Hope (1986)*, XX. mendeko masen kulturaren pertsonaiaren estatua. Lan horiek guztiak 'irudikapenen irudikapenak' dira, baina jatorrizko lanen erreferentzia zehatzak kendu zizkien. Hortaz, figura hauek ezin dira euren oinarrian dauden ereduak lotu.

*Estatuaria* seriearen barruan aurkitzen da Koonsen irudi ezagunenetako bat, *Untxia (Rabbit)*. Lan hau, era berean, 1970eko bere lanekin lotua dago. Altzairu herdoilgaitzezko puzgarri bat da: beti dago airez bete eta itxura ezin hobea du. Askotariko interpretazioak dituen arketipo bat da: erotikoak — Playboyn untxia— zein inuzentek —Pazkoko haurren untxitxo—.

### **Kiepenkerl**

201. aretoan *Kiepenkerl* ikus daiteke, artistak espazio publikoan egindako lehen lana; Münster-ko (Alemania) Skulptur Projekte arte-ekitaldirako egin zuen. Luxu-itxura faltua ematen dion altzairu herdoilgaitz leunduz egindako eskultura da. Lan hau, era berean, 1898ko brontzezko beste eskultura batean oinarritua dago. Eskultura hori hiriarren erdialdeko plaza batean zegoen eta konnotazio historikoak eta politikoak zituen. Izan ere, nazien propagandak erresistentziaren sinbolo gisa erabili zuen Bigarren Mundu Gerran.

*Kiepenker*/lanak kinkilari bat irudikatzen du. Herrien eta hiriaren artean salerosten zuenez, edozein motatako informazioa alde batetik bestera eramateko balio zuen. Koonsek bere lana jatorrizkoaren tamaina berekoa egin zuen, iragana eguneratu zuen eta aurreko bi serietako baliabide bera (altzairu herdoilgaitza) erabili zuen. Hala ere, pieza fabrikatzean sortutako zailtasunak —urtze-prozesuan kalteak izan zituen eta konponketa-lan handia egin behar izan zen— Koonsen eta aurkitutako objektuaren eta readymade-n arteko loturan aldaketa eragin zuen: aurkitutako objektua osorik, garbi-garbi eta eraldatu gabe uzteko beharretik askatu zen.

### Zeruan egina

**203.** aretoan Koonsen serie iskanbilatsuenetako bat dago, *Zeruan egina* (*Made in Heaven*); eduki esplizituagatik eztabaida handia sorrarazi zuen. Seriearen jatorrian Whitney Museum of American Art museoak *Image World* talde-erakusketarako, artearen eta hedabideen arteko erlazioan oinarritutakoa zegoena, lan bat egiteko Jeff Koonsi 1989an igorritako gonbidapena dago.

Erakusketa horretarako Koonsek publizitate-hesi erraldoia egin zuen. Bertan, Ilona Staller —Cicciolina izenez ezagunagoa zen eta geroago artistarekin ezkondu zen— eta artista bera inoiz egin ez zen *Made in Heaven* filmaren protagonista gisa azaltzen ziren. Filma ez zen inoiz egin, baina iragarki horretan jasotako gaiak izen bereko serie bati bide eman zion. Besteak beste, olio-pinturak egin zituen, mihise gainean inprimatuak; horietan bikotea Adan eta Eva moderno batzuen hezurmamitze moduan agertzen da, jarrera sexualetan, eta fideltasunari eta maitasunari, giza izaerari eta gizakiaren otzantzeari buruz hitz egiten duten arketipoz inguratuak. Garaiko kritikak gaitzetsi egin zuen *Zeruan egina* ariketa erradikala. Ariketa horren bidez Koonsek autoafirmaziora gonbidatzen gaitu.

Hilabete batzuk geroago, artistak seriearekin jarraitu zuen, beste material batzuen artean, Muranoko eta Pietrasantako (Italia) lantegietako beira eta marmola erabiliz, eta artearen historiaren lan garrantzitsuei erreferentzia eginez —Bernini, Courbet, Houdon eta Manet maisuenak, besteak beste—.

### Puppy

Museoaren kanpoko plazan bisitari guztiei ongi etorria egiten *Puppy* (1992) aurkituko dugu, Jeff Koons-en obra ikoniko eta maitatuenetako bat.

West Highland White Terrier arrazako lorezko txakurkume-monumentu honen lehen bertsioa Bad Arolsen hirian —Alemanian, Kassel hiritik hurbil— kokatutako Waldeck sendiaren gazteluaren patio nagusian ezarri zuten 1992an. Kassel-en Documenta IX. arte azoka egiten ari ziren. Hamaika metro neurtzen zituen bertsio hura egurrezkoa zen eta proiektua amaitzean desmuntatu egin zuten.

Geroago, Koonsek lan horren bertsio handiago bat sortu zuen, altzairuzko egiturearekin. Lan hori Sydneyko Museum of Modern Art museoan erakutsi zuten. 1997an pieza Guggenheim Bilbao Museoaren bildumarako erosi zuten eta, behin betiko, Museoaren eraikinaren aurrean jarri zuten. Obra honetan —*Hutsalkeria* eta *Zeruan egina* serieak gogoratzen dizkigu— loraldiaren fenomeno oso garrantzitsua da, obra era anarkikoan hazten baita eta obra bizirik dagoela adierazten baitu. Ezaugarri horrek bizitzaren indarra eta honen dimentsio espiritualak adierazten ditu.

### Dibertsio erraza; Dibertsio erraz-etereoa

**202.** aretoan bi serie aurkituko ditugu, *Ospakizuna* seriea garatzen ari zen bitartean Koonsek aurkeztutakoak: *Dibertsio erraza (Easyfun)* eta *Dibertsio erraz-etereoa*. Lehenengoan artistak animalien haur-siluetekin osatutako ispiluko azalera koloretsuen multzo bat sortu zuen; horren adibide dugu *Mortsa (berde urdinxa)* [*Walrus (Blue Green)*, 1999]. Azalera koloretsu horiek behatzailearen isla itxuraldatzen dute eta azalera erakargarri bihurtzen dira. Lan horiekin batera, Koonsek bere lehen hiru olio-pinturak egin zituen; horien artean *Loopy* (1999) dago. Liburuxka, iragarki, aldizkari eta argazki pertsonaletatik moztutako irudiak erabiliz, collage fotoerrealisten itxura hartzen dute olio-pintura horiek. Bertan, besteren artean, John Baldessari, James Rosenquist eta Jackson Pollock artisten lanen erreferentzia argiak ikus daitezke. Pintura horien ondoren *Dibertsio erraz-etereoa (Easyfun-Ethereal)* seriekoak egin zituen; besteak beste, aurrekoak baino sortze-prozesu konplexuagoa zuen *Ataltze leku (Junkyard)*, 2002) lana. Bertan Koonsek irudi-geruzak programa informatikoen bitartez landu zituen, eta ondoren mihisera eraman zituen.

### Ospakizuna

**208.** aretoan *Ospakizuna (Celebration)* saila aurkituko dugu, Jeff Koonsen ibilbidearen serie luzeenetako eta teknikoki konplexuenetako bat. Serie honen abiapuntua da artistak 1994ko egutegi bat diseinatzeko jasotako gonbidapena. Lan horretarako, urteko hilabete guztiak irudiztatzeko, ekitaldiekin eta festekin lotutako argazkiak atera eta irudiak bildu zituen, zegokion ospakizuna erraz atzematen ahalbidetuko zituztenak. Dokumentazio horrek garrantzi handiagoa hartu zuen, eta azkenean, hamasei pintura eta hogeiki eskultura osatu zituen. Obra horiek egiteko artistak urteak eman ditu, materialen eta hauen aleazio posibleen inguruan ikertzen eta lan egiten.

Eskulturen artean daude polietilenoan egindako obrak, hala nola, *Katua esekita (horia)* [*Cat on a Clothesline (Yellow)*, 1994–2001], eta ispilu-itxurako akaberako altzairu herdoilgaitzean egindako eskultura handiak, hala nola, *Puxika txakurra (magenta)* [*Balloon Dog (Magenta)*, 1994–2000]. Lan horietan, jostailu puzgarri txiki baten hozkak, tolestaketak eta formak askoz ere eskala handiagoan erreproduzitzen dira, material iraunkorrez eta kolore distiratsuez, gainera. Ezaugarri horiek lortzeko, hiru urteko ikerketaren eta adituekin egindako analisisien ondoren, artistak teknika jakin bat garatu zuen laka-pintura gainazalean emateko.

Serie honetako pintura hiperrealistak ospakizunetan —urtebetez, esaterako— edo haurren objektuetan oinarrituak daude. Lehen mihiseetan motibo horiek konposizioaren erdialdea —metal-koloreko atzealde distiratsu batean islatzean desagertzen dena— okupatzen dute, adibidez, *Haurra eta zaldi txikia (Boy with Pony)*, 1995–2008) lanean. Azken mihiseetan, berriz, jostailuek publizitatekoa dirudien paisaia hiperrealista sortzen dute.

Museoaren kanpoaldeko terrazan serie honetako beste obra garrantzitsu bat aurkituko dugu, *Idi-bihotzak (Tulips)*, 1995–2004). Guggenheim Bilbao Bildumako artelana da eta museoko bisitariez gain, ingurutik dabilzan oinezkoek ikusteko moduko lekuan jarrita dago modu iraunkorren.



**Popeye, Hulk Elvis, Antzinatasuna**

**105.** aretoan Jeff Koonsen lan berrienetako batzuk aurkituko ditugu. Popeyek, fikzioko itsasgizon ezagunak, izena ematen dio 2002an hasitako eta oraindik lantzen jarraitzen duen serie bati. Ikono herrikoi hau —ezbeharrari gailentzen dion sinbolo proletarioa da— eta haren inguruko beste batzuk (Olivia neskalaguna, adibidez) pintura- eta eskultura-multzo honen protagonista dira.

Koonsek *Metalezko sareta* (*Chainlink*, 2003) bezalako eskulturak sortzen ditu sail honetan. Metalez moldatutako igerilekuko puzgarriak eta industrian egindako eskaierak, aulkiak edo hesiak nahasten ditu lan horietan. *Olivia* (*Olive Oyl*, 2003) bezalako serieko pinturen geruzen artean eskultura horien irudiak agertzen dira. Lehendabizi diseinuko programa informatikoen bitartez kontzeptualizatu zituen eta, ondoren, oliaz pintatu zituen mihise gainean. Konposizioa konplexua eta, aldi berean, laua da: irudiak bakunak diren arren, bat egiteko moduagatik zaila da bakoitza identifikatzea.

Areto horretan bertan aurkituko dugu *Hulk Elvis*, Koonsek 2004an hasitako beste serie bat. 'Hulk harrigarriak' Elvis Presleyk *Flaming Star* izeneko *western* filmaren publizitatean zuen postura hartzen du. Andy Warhol-en serigrafiei esker, kantariaren irudi ezagunenetakoa da hori. Hulkek zein Elvisek maskulinitate-zama bereziki handia dute, eta bi pertsonaiek, halaber, gatazkan dagoen dualtasun bat dute. Hulkek bizitza bikoitza dauka, Elvis Presleyk film mitiko horretan bezala. Koonsek superheroiaren figura brontzezko bertsio puzgarri bihurtu zuen, eta objektu errealez osatu zuen. Horrela, readymade eraldatu bat sortu zuen. Serie honetako eskulturekin batera, Koonsek pintura konplexuak sortu zituen, esaterako, *Bikote nederlandarra* (*Dutch Couple*, 2007). Bertan, zenbait geruza gainjarri zituen; *ben-day* puntuak erabili zituen —Roy Lichtenstein gogora ekartzen digute— eta horien garrantzia handitzen joan zen.

Koons ikerketa-prozesu sakon batean ere murgiltzen zen, hiru dimentsioko eskaneatzeko tekniken bidez, bere ustez readymade aldatuak diren historiako objektu ikonikoen erreplikak egiteko helburuarekin. Horren adibide da *Askatasunaren kanpaia* (*Liberty Bell*, 2006–14). Lan honetan estatubatuarren askatasunen eta independentziaren sinboloa den kanpaia ikus daiteke. Kanpaia hori behin baino gehiagotan urtu dute, eta bere errepliken inguruan historia luzea da; Koonsek bere lanean historia hori emulatzeko du.

*Antzinaroa* (*Antiquity*) seriean Koonsek, besteak beste, ugalkortasuna, emakumeen edertasunaren kanonak eta bizitzaren energia gaiak aztertzen ditu, historiaren hainbat garaitan. 2008an hasi zuen serie honetan historiaurreko jainkoak edo jainko grekoerromatarrak irudikatzen dituzten eskulturak agertzen dira. Hauekin batera, benetako emakumeen argazkietako edertasun modernoago batean oinarritutako pinturak aurkituko ditugu, adibidez, *Antzinaroa 3* (*Antiquity 3*, 2009-11) pinturan, Gretchen Mol aktoreak Bettie Page *pin-up* ezaguna irudikatzen du.

Serie honetan, Koonsek bere obra artearen historiaren erreferenteekin lotzen du, eta artearen historiako kultur objektuen simulazioaren eta erreproduzioaren rol aldakorra aztertzen ditu. Bere eskulturek mimetikoki erreproduzitzen dituzte beste irudi batzuk; adibidez Napolesko Museo Arkeologikoko *Calipigia* venus erromatarraren XIX. mendeko portzelanazko figuratxoa —aldi berean, aurretik egindako

lan greziar baten kopia—. Figura hori altzairu herdoilgaitzezko *Venus metaliko* (*Metallic Venus*, 2010–12) erraldoi urdin turkesa bihurtu zuen Koonsek, eta benetakoa loreak gehitu zizkion.

Era berean, pinturak artearen historiaren obra garrantzitsuei egiten diete erreferentzia. Bertan, jainko garaikideak satiro eta edertasun klasikoekin nahasten dira. Pintura horietan guztietan aurreko planoan Gustave Courbet-en *Munduaren sorlekua* lanari egiten zaio erreferentzia. Gainera, Muhammad Ali omentzen du; izan ere, Alirekin elkarlanean aritu zen: Alik marrazki batzuk egin zituen artistaren proiektu baterako.

### **Esfera islatzailea**

**105.** aretoan ere *Esfera islatzailea* (*Gazing Ball*) seriea aurkituko dugu. 2013an hasi zuen, kultura batzuetan igarpenarekin, babesarekin eta beste munduarekin lotutako kristalezko elementu hauek hartzen ditu oinarri gisa Koonsek. Jatorrian lorategi viktoriarretan ipintzen ziren, baina Estatu Batuetako zenbait etxetako lorategitan apaingarri gisa erabiltzen dituzte, bizilagunei ongietorria egiteko. Gainera, esfera hauen gainazalean euren inguruko paisaia “trinkotzen” da.

Eskuz egindako, artisau batek putz egindako Koonsen beirazko esfera urdin distiratsuetan biltzen da inguruan gertatzen den guztia. Igeltsu zuri orbangabeen egindako lorategiko altzariak edo objektuak esferak eusteko edo gainean ipintzeko erabiltzen dira, zenbait kasutan figura garrantzitsuen forma duten arren —*Esfera islatzailea* (*Herkules Farnesio*) [*Gazing Ball* (*Farnese Hercules*), 2013]—. Igeltsuek, jatorrizkoen erreplika zehatzak, opakuak dira eta ez dute bizitzarik, baina, aldi berean, naturaz gaindiko hobezintasuna jariatzen dute.

### **Katalogoa**

Erakusketaz gain, Scott Rothkopf, Antonio Damasio, Jeffrey Deitch, Isabelle Graw, Achim Hochdörfer, Michelle Kuo, Rachel Kushner, Pamela M. Lee eta Alexander Nagel adituen entseguen bidez, artistaren ibilbidea erakusten duen katalogo ilustratu bat topatuko dugu.

### **Gune didaktikoa**

Erakusketaren proiektu didaktikoaren helburu da erakusketaren protagonista diren pertsonaiak aurkeztea: alde batetik, artista bera, eta, bestetik, bere obra batzuk sortzeko abiapuntu gisa balio izan duten pertsonen, objektuen edo tradizioen aukeraketa bat. Serietan egituraturako erakusketaren planteamendua lagungarria da ikuspegi pedagogiko honetarako, aurkeztutako serietako protagonista batzuk zein diren eta nondik azaltzen diren identifikatuko baititu.

Kasu askotan arketipo hauen jatorria artearen historiaren elementuetan dago, hala nola, eskultura klasikoan eta Marcel Duchamp-en *readymade*etan; eta beste batzuetan AEBko gizartearen eta honen tradizioetan oinarritzen dira, hala nola, *Thanksgiving Day* edo Esker Emate Egunaren desfilea, bertako kultur oinordetza zein musikaren eta zinemaren ikonoak —Elvis Presley eta Bob Hope, kasu—. Batzuetan ere bisitaria bera protagonista bihurtzen da.

Azkenik, *Puppyk* ere —ikono ukazina da, eta Museoaren eta Bilboko hiriaren arteko lotura— bere lekutxoia izango du espazio honetan, erakusketa honetarako bereziki produzitutako ikus-entzunezko pieza baten bitartez.

## **Hezkuntza-jarduerak**

### **Sormen-saioa**

Erakusketaren obra zehatzei eta ideia nagusiei lotutako gazteentzako eta helduentzako gai desberdinei buruzko tailerrak egingo dira.

### **Koktelgintza-tailerrak (ekainak 5, ostirala)**

Erakusketaren aurrerapen gisa, David Rios-ek mixologia-tailer eskusiboa emango du. Rios jaunak *Diageo Reserve World Class 2013* saria irabazi zuen, koktelgintza-munduan dagoen sari nagusia. Tailerrean parte hartzen dutenek, mixologiarekin lotutako Jeff Koonsen lanetako batzuk ezagutzeaz gain, diziplina honetan sakonduko dute eta David Riosek prestatutako koktel batzuk dastatzeko aukera izango dute. Gainera, artistaren edari gustukoenean oinarrituta, euren konbinatuak prestatu eta, dastamenaren eta usaimenaren zentzuak goretsiz, sormen-esperientzia bat bizi ahal izango dute.

### **Jeff Koonsekin topaketa (ekainak 9, asteartea)**

Jeff Koons artistak bere obrari eta atzera begirako bere erakusketari buruz hitz egingo du Guggenheim Bilbao Museoa.

### **Partekatutako hausnarketak (ekainak 17 eta 24, asteazkena)**

Museoko profesionalak lagunduta erakusketara egindako bisitaldi paregabe hauetan Jeff Koonsen erakusketaren muntaiaren zirrikituak eta beste bitxikeria batzuk azalduko dira. Fundación Vizcaína Aguirrek babestuak.

Ekainak 17, asteazkena: **Arte Ardura Arloaren ikuspegia** Lucía Agirrereren eskutik, erakusketako komisarioa eta Guggenheim Bilbao Museoaren arte-arduraduna.

Ekainak 24, asteazkena: **Funtsezko kontzeptuak** Marta Arzaken eskutik, Guggenheim Bilbao Museoaren Hezkuntza eta Interpretazio zuzendariordea.

### **Aretoetako orientatzaileak**

Bisitarietako aretoetako orientatzaileei galdetu ahal izango diete ikusgai dauden obren inguruan informazio zabalagoa jasotzeko. Museoak 11:00etatik 14:00etara, dohainik, eskaintzen du zerbitzu hau.

**Azaleko irudia**

Jeff Koons

*Untxia (Rabbit)*, 1986

Altzairu herdoilgaitza

104,1 x 48,3 x 30,5 cm

1/3 edizioa

Museum of Contemporary Art Chicago; zati batean hauen dohaintza: Stefan T. Edlis-en eta H. Gael Neeson, 2000.21

© Jeff Koons

**Informazio gehiagorako:**

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel: 944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)

[www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es)

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: [www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es) (prentsa-eremua).

## Jeff Koons, York, Pensilvania, 1955

- 1955 York-en jaio zen (Pensilvania). Henri eta Gloria Koons-en seme da. Arreba bat du, Karen, 3 urte zaharra. Dekorazio denda zuen aitak eta berarengandik ikasi zuen estetikaren zentzua izaten.
- 1960 Gurasoek Koonsen artista-etorria sustatu zuten eta marrazketa-eskoletara sartu zuten.
- 1963 Maisu handien kopiak margotu zituen eta aitak dendako beira-arasetan erakutsi zituen eta bezeroei saldu zizkien.
- 1972–74 Maryland Institute College of Art-en ikasten hasi zen (Baltimore). Bertan bizantziarren pinturarekiko eta Ameriketako arte herrikoiarekiko interesa sortu zitzaion. Surrealisten artean inspiratutako eszenak eta paisaiak margotu zituen. Salvador Dalíri telefonoz deitu zion, St. Regis Hotelera, eta egun bat igaro zuen harekin New Yorken.
- 1975 School of the Art Institute of Chicago-n ikasketak jarraitu zituen, eta Jim Nutt eta Ed Paschke artistekin eskolak hartu zituen. Paschkeren lagun min bihurtu zen.
- 1976–77 Arte lizentzia (Bachelor of Arts) eskuratu zuen Maryland Institute College of Art-en (MICA). New Yorkera aldatu zen eta Manhattango musika-giroan murgildu zen (Patti Smith eta Talking Heads).
- 1977 David Salle eta Julian Schnabel artisten bidez, Mary Boone galerista ezagutu zuen eta hark Koonsen obrari buruzko interesa agertu zuen. East 4th kaleko apartamentuan, puzgarriz eta ispiluz egindako eskulturak egiten hasi zen. Museum of Modern Art-en (MoMA) lan egin zuen, kideak eta babesleak biltzeko mahaian.
- 1978 *Puzgarriak (Inflatables)* saila hasi zuen, eta hurrengo urtean *Berriaren aurrekoa (Pre-New)* saila.
- 1980 Lehen erakusketa izan zuen, *The New*, New Yorkeko New Museum of Contemporary Art-eko erakusleho batean, Fourteenth Street-ekoan. Xurgagailuen hiru eskultura erakutsi zituen argi fluoreszenteekin argizatuta, eta erakusketaren eta lan horien sailaren izena zeraman (bera da) argi kutxa bat jarri zuen ondoan.
- 1985 *Oreka (Equilibrium)* seriea hasi zuen eta New Yorkeko bere lehenengo bakarkako erakusketan erakutsi zuen, International with Monument-n; eta urte horretan bertan, Chicagoko Feature Gallery-n ikusgai jarri zituen. Sail horretan *Oreka perfektuan dauden 50/50 bi baloidun arrainontzia (Two Ball 50/50 Tank)* pieza ospetsua zegoen: saskibaloia batzuk bitrina batzuen barnean murgilduta zeuden, orekan. Lan hori egiteko zailtasun teknikoak gainditzeko Nobel saridun Richard P. Feynman doktorearen eta fisikariaren laguntza izan zuen.
- 1986 *Luxua eta endekapena (Luxury and Degradation)* saila egon zen erakusgai New Yorkeko International with Monument-en. Gizarte-klaseen eta gizarte-mugikortasunaren inguruko gaiak landu zituen horretan. Ondoren, berehala, *Estatuaria (Statuary)* seriea hasi zuen; horren barruan altzairu herdoilgaitzezko *Untxia (Rabbit)* ezaguna egin zuen. Koonsek Ileana Sonnabend-en galerian artelanak erakutsi zituen, neo-geo artista batzuekin batera; bertan izan zen lehen aldiz ikusgai *Untxia* lana. Sonnabend Gallery galeria izan zen Koons-en ordezkaria 20 urtez (1990eko hamarkadan eten txiki bat egin bazuen ere).

- 1987 Whitney Museum of American Art-ek haren bienalean aurkeztu zuen lana *Oreka perfektuan dagoen baloidun arrainontzia (One Ball Total Equilibrium Tank)*. Saatchi Collection-eko *New York Art Now* erakusketan sartu zen (Londres). Bertan AEBko artista gazteen lanak erakutsi ziren eta Koonsen *Untxia* katalogoaren azalerako erabili zuten. Municheko Skulptur Projekte azokarako (Alemania) *Kiepenker*/lana egin zuen, azokako komisario Kasper König-en gonbidapenari jarraiki.
- 1988 *Hutsalkeria (Banality)* saila sortu zuen, eta Ileana Sonnabend Gallery-n (New York), Donald Young Gallery-n (Chicago) eta Galerie Max Hetzler-en (Kolonia) jarri zuen erakusgai. Tartean zegoen *Michael Jackson eta Bubbles (Michael Jackson and Bubbles)* pieza ospetsua. Erakusketa iragartzeko lau arte-aldizkaritan bere burua protagonista zuen iragarkia ipini zuen. Chicagoko Museum of Contemporary Art-en erakusketa bat izan zuen.
- 1989 Rotterdamse Kunststichting-en egon zen erakusgai. New Yorkeko Whitney Museum of American Art-ek antolatutako *Image of the World* erakusketaren barruan, poster bat instalatu zuen Broadway-ko publizitate-hesi batean, *Zeruan egina (Made in Heaven)* pintura eta eskulturen sailaren lehenengo irudia izan zen; erretratu horretan, Ilona Staller «Cicciolina» aktore pornografiko eta Italiako parlamentuko ordezkariarekin agertzen zen. Filma ez zen inoiz ekoitzi, baina hurrengo sailari, *Zeruan egina*, bidea eman zion.
- 1990 *XLIV Biennale di Venezia* parte hartu zuen (Venezia) eta, bertan, *Zeruan egina (Made in Heaven)* pintura eta eskulturen saileko lehenengo lanak erakutsi zituen.
- 1991 *Zeruan egina (Made in Heaven)* sail osoa erakutsi zuen (pinturak eta portzelanazko, zurezko eta beirazko eskulturak) New Yorkeko Ileana Sonnabend Gallery-n eta Koloniako Galerie Max Hetzler-en. Ilona Staller-ekin ezkondu zen Budapesten.
- 1992 San Francisco Museum of Modern Art-ek eta Amsterdam-eko Stedelijk Museum-ek bere obraren atzera begirako erakustaldiak egin zituzten. *Documenta* azokan, *Puppy* lan ezaguna instalatu zuen Arolsen gazteluaren aurrean (Hesse, Alemania): lorez egindako 12 metroko West Highland White Terrier motako txakurkume baten irudia. *The Jeff Koons Handbook* argitaratu zuen.
- 1993–94 *Ospakizunak (Celebration)* sailean lanean hasi zen. Urte osoko ospakizunak hartu zituen oinarri eta eskala handiko produkzio-moduak erabili zituen. Koons eta Ilona Staller 1994an dibortziatu ziren eta semearen jagotea lortzeko borroka luzea hasi zuten. Koons-engan eragin handia izan zuen tirabira horrek.
- 1997–98 Lehen bakarkako erakusketa izan zuen Parisen, Galerie Jérôme de Noirmont-en. *Puppy* eskuratu zuen Guggenheim Bilbao Museoa eta erakundearen inaugurazioan eraikinaren kanpoaldean instalatu zuten iraunkorki.
- 1999 New Yorkeko Ileana Sonnabend Gallery-n eta Atenasko Deste Foundation Centre for Contemporary Art-en egin zituen erakusketak. *Ospakizunak (Celebration)* saileko lanen ekoizpena astiro zihoanez, *Dibertsio erraza (Easyfun)* seriea hasi zuen Koonsek. Pinturak eta eskultura islatzaileak barne hartzen zituen. Saila Sonnabend Galleryn erakutsi zen.

- 2000 *Dibertsio erraz-etereoa (Easyfun-Ethereal)* pintura-saila sortu zuen eta Deutsche Guggenheim-en jarri zuen erakusgai (Berlin).  
*Zaldi kulunkari zatitua (Split-Rocker)* lore-eskultura instalatu zuen Palais des Papes-en (Avignon, Frantzia). *Puppy* lanaren beste bertsio bat New Yorkeko Rockefeller Center-en egon zen ikusgai aldi baterako.  
*Berliner Zeitungek* BZ-Kulturpreis eman zion (Berlin).
- 2001 Kunsthaus Bregenz-en (Austria) eta Gagosian Gallery-n (Los Angeles) egin zituen erakusketak. *Dibertsio erraz-etereoa (Easyfun-Ethereal)* saila jarri zen erakusgai Guggenheim Bilbao Museoan eta hurrengo urtean New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-en. Frantziako Errepublikaren Chevalier de la Légion d'honneur izendatu zuen presidente Jacques Chirac-ek; domina Jean-Jacques Aillagon-ek, Parisko Centre Pompidou-ko presidentek, ipini zion.
- 2002 *Popeye* seriea hasi zuen; horretan berriz ere readymadeak eta puzgarriak egin zituen. Argazki eta lan grafikoei buruzko erakustaldi bat egin zen Kunsthaus Bielefeld-en (Alemania). *XXV Bienal de São Paulon* parte hartu zuen (São Paulo) eta, bertan, *Dibertsio erraz-etereoa (Easyfun-Ethereal)* saila erakutsi zuen.  
 Skowhegan Medal for Sculpture jaso zuen, Skowhegan School of Painting and Sculpture-k esleituta (Maine). Corcoran College of Art and Design-eko Arte Ederretako Honoris Causa doktore izendatu zuten (Washington).  
 Justine Wheeler-ekin ezkondu zen.
- 2003 Italiako museo batean egon zen erakusgai lehenengo aldiz: Museo Archeologico Nazionale di Napoli-n (Napoli).  
*Jasper Johnsetik Jeff Koonsera: Broad bildumen artearen lau hamarkada* erakusketan egon zen ikusgai Guggenheim Bilbao Museoan. *Popeye* lanaren lehen pintura eta eskulturak erakutsi ziren New Yorkeko Sonnabend Gallery-n.
- 2004 Berlingo Galerie Max Hetzler-en egin zuen erakusketa bat. Atzera begirakoa bat izan zuen Osloko Astrup Fearnley Museet for Moderne Kunst-en; gerora, erakusketa hori Helsinkiko Helsingin taidemuseo-ra eraman zuten.  
*Hulk Elvis* saila hasi zuen.
- 2005 American Academy of Arts and Sciences-eko hautagai izan zen. *Ilargia (Moon)* eskultura, *Ospakizunak (Celebration)* sailekoa, Parisko Palais de Tokyo-n erakusgai izan zen, *Translation* izeneko erakusketan.  
 Haren 50. urtebetetzerako, emazte Justine-k eta lagun Jeffrey Deitch-ek ezusteko festa bat antolatu zuten Deitch-en galerian.
- 2006 Haren lana eta Antonio Cánova-rena batera erakutsi zuten Deutsche Guggenheimen, Berlinen, *Canova and Koons: Classical Subversion* izenburupean. *Puxika txakurra (Balloon Dog)* lana jarri zuten Veneziako Kanal Handian, Palazzo Grassiko egoitzan Pinault Collection ikusgai ipini zenean.  
*Puxika lorea (gorria) [Balloon Flower (Red)]* lana aurkeztu zen 7 World Trade Center-en.
- 2007 Officier de la Légion d'Honneur izendatu zuen Parisen Frantziako Errepublikako presidente Jacques Chirac-ek.  
 Londresko Gagosian Gallery-ren bi egoitzetan artistaren erakusketa bana inauguratu zen: *Jeff*

*Koons: Popeye* eta *Jeff Koons: Hulk Elvis*.

Haren lanak National Gallery of Victoria International-eko *Guggenheim Collection: 1940s to Now* erakusketa kolektiboaren zati izan ziren (Melbourne, Australia).

Koons Family International Law and Policy Institute erakundea sortu zuen, haurren bahiketaren eta esplotazioaren aurka mundu osoan borrokatzeko.

- 2008 Chicagoko Museum of Contemporary Art-ek artistaren erakusketa monografiko bat egin zuen. Hiru lan instalatu ziren The Metropolitan Museum of Art-eko zabaltzan (New York): 1994–2000ko *Puxika txakurra (horia)* [*Balloon Dog (Yellow)*], 1997–2005eko *Margotzeko liburua (Coloring Book)* eta 1994–2007ko *Bihotz sakratua (gorria/urre kolorekoa)* [*Sacred Heart (Red/Gold)*]. Berlingo Neue Nationalgalerie *Ospakizunak (Celebration)* saileko lanak erakutsi zituen. Lehen aldiz, Versailleseko Jauregian bizirik zegoen artista baten erakusketa egin zen, *Jeff Koons: Versailles*; artistaren lanen aukeraketa bat ikusgai ipini zen jauregiko Grands Appartements aretoetan. *Antzinaroa (Antiquity)* seriea hasi zuen.
- 2009 Bere obra Bartzelonako Black Cube Gallery-ko *Four-4* erakusketan sartu zen. Haren obra Stedelijk Museumeko *The unexpected – van Picasso tot Penck, van Appel tot Koons* erakustaldian egon zen ikusgai (Amsterdam). Londresko Serpentine Gallery-n *Popeye* saila aurkeztu zen. Artist Rooms hainbat egoitzetan erakusteko ekimenaren barruan haren lanak erakutsi ziren 2011 arte (Artist Rooms Tate eta National Galleries of Scotland-en jabetzapeko arte garaikide bilduma handia da). Koons-ek Pensilvaniako gobernuaren sari bat jaso zuen: Distinguished Arts Award, Governor's Awards for the Arts-ek, Pennsylvania Council on the Arts-ek, esleitutakoa.
- 2010 Londresko Royal Academy of Arts-eko ohorezko kide izendatu zuten. Erakusketak egin zituen Gagosian Gallery-n, New Yorken, eta Galerie Jérôme de Noirmont-en, Parisen. Irabazi asmorik gabeko RxArt erakundeak, Kiehl's-en lankidetzarekin, artistaren obra Advocate Hope Children's Hospital-en instalatu zuen, Oak Lawnen, Illinoisen. BMWren «17th Art Car», artistak sortua, Le Mans-eko 24 orduak ibili zituen, Frantzia.
- 2011 FECS Health and Human Services System erakundeak Voice of Art Award lehen saria eman zion, eta Bruce Museum-ek (Greenwich, Connecticut) Artist Icon Award in the Arts saria. Edinburgoko Scottish National Gallery of Modern Art-ek *ARTIST ROOMS Jeff Koons* inauguratu zuen.
- 2012 Erakusketa monografikoak izan zituen Beverly Hillseko Gagosian Gallery-n eta Bruselako Almine Rech Gallery-n. Bakarkako erakusketa izan zuen, lehena Suizan, Basileako Fondation Beyeler-en. *Jeff Koons: The Painter* erakusketa ireki zen Frankfurtoko Schirn Kunsthalle-n eta aldi berean *Jeff Koons: The Sculptor* hiri horretako Liebieghaus Skulpturensammlung-en. AEBko Estatu Departamentu buru Hillary Rodham Clinton-ek Medal of Arts domina eman zion, Koonsek Art in Embassies egitarauarekin konpromiso handia erakutsi baitzuen eta nazioarteko kultur trukea sustatzen baitzuen.
- 2013 Bruselako Almine Rech Gallery-n izan zuen erakusketa. New Yorken bi erakusketa izan zituen udan, aldi berean, Gagosian Gallery-n *Jeff Koons: New Sculptures and Paintings* eta David Zwirner galerian *Jeff Koons: Gazing Ball*; azken horretan lehen aldiz erakutsi ziren *Esfera islatzaileak (Gazing Ball)* saileko lanak.



- 2014 Koonsen lanaren atzera begirako handia ireki zen New Yorkeko Whitney Museum of American Art-en; gerora Parisko Centre national d'art et de culture Georges Pompidou-n ikusgai izan zen.
- 2015 *Jeff Koons ARTIST ROOMS* IREKI ZEN Norwich Castle Museums and Art Gallery-n, Norfolk-en, Erresuma Batuan.  
Guggenheim Bilbao Museoa *Jeff Koons: atzera begirakoa* ireki zen.

Prentsa irudiak:  
**Jeff Koons: atzera begirakoa**  
Guggenheim Bilbao Museoa

**Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua**

Museoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es/eu](http://prensa.guggenheim-bilbao.es/eu)) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, [media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)

Jeff Koons

*Lore eta untxi puzgarriak (zuri luzea, untxi larrosa)* [*Inflatable Flower and Bunny (Tall White, Pink Bunny)*], 1979

Biniloa eta ispiluak

81,3 x 63,5 x 48,3 cm

The Broad Art Foundation, Santa Monica

© Jeff Koons



Jeff Koons

*Oreka perfektuan dagoen baloidun arrainontzia (Spalding, Dr. J 241 saila)* [*One Ball Total Equilibrium Tank (Spalding Dr. J 241 Series)*], 1985

Beira, altzairua, ur destilatua, sodio kloruro errektiboa eta saskibalo pilotabat

164,5 x 78,1 x 33,7 cm

Edizioa: 2 aletik 1.

Bilduma pribatua

© Jeff Koons



Jeff Koons

*Untxia (Rabbit)*, 1986

Altzairu herdoilgaitza

104,1 x 48,3 x 30,5 cm

Edizioa: 3 aletik 1.

Museum of Contemporary Art Chicago, zati batean hauen dohaintza: Stefan T. Edlis eta H. Gael Neeson, 2000.21

© Jeff Koons



Jeff Koons

*Michael Jackson eta Bubbles (Michael Jackson and Bubbles)*, 1988

Portzelana

106,7 x 179,1 x 82,6 cm

Edizioa: 3 aletik 1.

Bilduma pribatua

© Jeff Koons



Jeff Koons

*Loredun ontzi handia (Large Vase of Flowers)*, 1991

Zur polikromatua

132,1 x 109,2 x 109,2 cm

Edizioa: 3 aletik 1.

Bilduma pribatua

© Jeff Koons



Jeff Koons

*Puppy*, 1992

Altzairu herdoilgaitza, substratua, geoehuna, barneko ureztaketa-sistema eta loratzen ari diren landareak

1.240 x 830 x 910 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

© Jeff Koons



Jeff Koons

*Ataltze lekua (Junkyard)*, 2002

Olio-pintura mihise gainean

259,1 x 350,5 cm

Whitney Museum of American Art, New York, hauen agindutako dohaintza:

Thea Westreich Wagner eta Ethan Wagner P. 2011.215

© Jeff Koons



Jeff Koons

*Puxika txakurra (magenta) [Balloon Dog (Magenta)]*, 1994–2000

Leundutako altzairu herdoilgaitza, ispilu-akaberaduna, koloredun laka zeharrargiarekin

307,3 x 363,2 x 114,3 cm

Bost ale bakanetatik bat

Collection Pinault

© Jeff Koons



Jeff Koons

*Idi-bihotzak (Tulips)*, 1995–2004

Leundutako altzairu herdoilgaitza, ispilu-akaberaduna, koloredun laka zeharrargiarekin

203,2 x 457,2 x 520,7 cm

Bost ale bakanetatik bat

Guggenheim Bilbao Museoa

© Jeff Koons



Jeff Koons

*Tela metálica (Chainlink)*, 2003

Aluminio polikromatua, altzairu galbanizatua

264,2 x 174 x 48,9 cm

Edizioa: 3 aletik 3.

Bilduma pribatua

© Jeff Koons



Jeff Koons

*Popeye*, 2009–11

Leundutako altzairu herdoilgaitza, ispilu-akaberaduna, koloredun laka zeharrargiarekin

198,1 x 131,4 x 71,8 cm

Edizioa: 3 aletik 1.

Gagosian Gallery

© Jeff Koons



Jeff Koons

*Hulk (organoa)* [*Hulk (Organ)*], 2004–14

Brontze polikromatua eta askotariko baliabideak

237,3 x 127,6 x 80,3 cm

Edizioa: 3 aletik 2.

Gagosian Gallery

© Jeff Koons



Jeff Koons

*Askatasunaren kanpaia* (*Liberty Bell*), 2006–14

Brontzea, zura, burdina forjatua eta urtua

259,1 x 183,5 x 142,9 cm

Edizioa: 3 aletik 1.

Bilduma pribatua

© Jeff Koons



Jeff Koons

*Antzinaroa 3* (*Antiquity 3*), 2009–11

Olio-pintura mihise gainean

259,1 x 350,5 cm

Bilduma pribatua; honen eskaintza: Fundación Almine y Bernard Ruiz-Picasso para el Arte

© Jeff Koons



Jeff Koons

*Esfera islatzailea* (*Ariadna*) [*Gazing Ball* (*Ariadne*)], 2013

Igeltsua eta beira

112,7 x 238,4 x 93 cm

Edizioa: 3 aletik 3.

Monsoon Art Collection

© Jeff Koons

